



AIA
PROBALEKUA



7

denboraldia
2026
KULTUR
PROGRAMA

 AIA
PROBALEKUA



• denboraldia
2026
KULTUR
PROGRAMA



haya Aia
1025

ais Aia
TURISMOA.





ESANEZIN HORMETAN IDAZTEN



Hormetan idazten du izena "Esanezin"en disko berriak, Altzagarateko musikariaren estudioko hirugarren lana da; "Esanezin" lanire Aranzaberen proiektu musikala da. 2021ean abiatu zuen bere musika ibilbidea eta hiru lan kaleratu ditu orain artean.

Hormak oinarri direlarik kantatu nahi izan du oraingon lanirek, izan ere nor ez da inoiz gelditu horma baten idatzitakoa irakurtzera? Hormetan idatzi nahi izan du maitasun eske, idatzi du gure zauriez; eta gogorarazi nahi izan du azken

aldiek ez digutela abixatzen. lanireren hitzetan "horma batean idatzitakoa efimeroa da, gu garen bezalaxe. Une jakin batean norbaitek irakur dezake bertan idatzitakoa, edo inork irakurri baino lehen galdu daiteke"; eta efimerotasun hori gure bizitzen isla zuzen gisa ikusten du.

Zentzu horretan, lanirek uste du hormak ere badirela gure garaiaz hitz egin dezaketen elementuak, eta irudikatu nahi izan ditu gure arteko elkarrizketa zein hausnarketarako espazio gisa.

KONTZERTUA
OTSAILAK 21
LARUNBATA



RUPER ORDORIKA

LURRA IKUTU BARIK



Ruper Ordorikak zuzenean aurkeztuko du "Lurra ikutu barik" bere diska berria Aiako probalekuan, datorren Otsailaren 21ean. Album berri honek osatuko du dagoeneko 20 diskatik gora heldu den bere ibilbidea.

Aurkezpenerako bere Mugalariak taldearekin arituko da: Arkaitz Miner (gitarra, bibolina eta mandolina), Lutxo

Neira (baxua) Hasier Oleaga (bateria) eta Nando de La Casa (perkusioak eta teklatuak).

Ezin da Ruper Ordorika laburrean definitu... bere kantuetan sakontasunari eustea lortzen du halako edertasun bitxia erdietsiz, hitzen hautaketa eta soinu bilaketa etengabearen ondorioz: hor ditugu bere kantu iraunkorrak estilo itxietatik at heltzen zaizkigunak...



AUKERAN DANTZA KONPAINIA

AMAMA



Amama batek ipuinak kontatzen dizkio bilobari. Euskal dantzetan oinarritutako koreografien bidez, zazpi ipuin kontatuko dira, zazpi euskal lurraldeetako herri banatan kokaturik gai eta pertsonaia ezberdinekin. Ipuinen irakurketarekin batera, dantza izango da ipuinen irudikapen koreografikoaren protagonista.

Oraingo honetan, 25 urte baino gehiagotan lehen aldiz,

Aukeran Dantza Konpainia haurren mundura hurbiltzen ari da espresuki, errespetuz eta gogotsu. Ipuin tradizional zaharren irakurketa berritua, bertaratutakoentzako bidaia ekarriko duten koreografia berrieekin batera. Gure herriko geografia ezberdinetan barrena eramango gaitu, pertsonaia harrigarrieekin.

KONTZERTUA
UZTAILAK 17
OSTIRALA



JULEN ALONSO

HARIA



Hirugarren aldiz dator Julen Alonso probalekura. Oraingo honetan, "Haria" ikuskizuna estreinatuko du bertan, *Oinkari dantza taldearekin* batera.

Julenen kantuak nahiz eta askotan dantzagarriak izan, sortzen dituen hitzak badute sakontasun bat. Bere bizitzaren parte izan diren poz eta arazoak, kantuetan isladatzen ditu. Berak esaten duen bezala, bizitza azkenean hari bat bezalaxekoa

da. Beti etorriko dira korapiloak, baina ze garrantzitsua den banaka askatzen joatea. Datozenak askatu ahal izateko. Bost musikariz inguratuta egongo da oholtzan. Perkusioan Iker Telleria, baxuan Amaïur Cajaraville, gitarran Gorka Urrea, panderoa eta ahotsean Uxue Kerejeta, eta teklatuan Beñat Armentia.

TRAJEA

JOSEBA APAOLAZA
ASIER HORMAZA



Hiriburuko saltoki handietako merkealdiaren lehen eguna da. Jendea tropelean sartu da eta istripu bat izan da. Eraikinaren erraietan, segurtasun-zaintzaile batek negozio-gizon bat galdekatu du, jantzi bat erostera etorri delako eta gertakariekin zerikusia izan duelako.

Baina zein dira egitateak zehazki? Eta zer arrisku dakarkie bi pertsona horiei? Joseba Apaolaza eta Asier Hormaza dira muntaia izugarri, itogarri eta aldi berean ernagarri honen protagonistak, lurpeko interpretazio-duelu batean.



NEOMAK LAZTURAK ORBAIN



Bizitza eta aldaketa. Bizitza bera etengabeko aldaketa da. Aldaketa guztiek eraikitzen dute ere beldurra dakar. Zalantzari, ez jakintasunari beldurra. Beldurra naturala da. Gizakia ohitura eta errutina behar dituen izakia da, segurtasuna eta egonkortasuna lor ditzan. Baina gero eta mundu dinamikoagoan eta ziurgabeagoan bizi gara, eta hortik beldurrak. Diskoa aldaketa prozesuen

aurrean barne bidaia bat da. Bidaia horretan, fase desberdinetatik igaroko gara, (emozio, sentimendu, kolore, textura, soinu, iruditegi, espazio...) fase bakoitza kantu batekin osatuz. Kantu bakoitza barne - zein kanpo - beldurrei begiratzeko toki desberdin bat izango da, eta horrek irudikatuko du aurrez aipatu dugun etengabeko aldaketa: gu geu aldatuz goazen heinean, desberdin kudeatzen baititugu gure beldurrak.



III. TRIKITI JAIALDIA



Hirugarren Trikiti Jaialdia ospatuko dugu abenduak 19an. Trikitizaleon bilgune bihurtuko da beraz hirugarren urtez jarraian Probalekua.

Trikitixa eta panderoaren soinua ardatz hartuz, belaunaldi ezberdinetako trikitilariak izango ditugu oholza gainean, estilo eta konbinazio ezberdinetako bikote eta taldeak; doinu eta aire berriak entzuteko aukera izango dugu benetako euskal giro jatorrean.



**SARRERAK
ESKURATZEKO BIDEAK**



INTERNET BIDEZ **aiaturismoa.eus**

AIAKO KULTUR ETXEAN
T: 943 13 09 24

OHARRAK

Antolatzaileak berretzat gordetzen ditu ekitaldien egitaraua
aldatzeko eskubidea

Akats tipografiko ezean baliozko egitaraua

 AIA
PROBALEKUA



- denboraldia

2026
KULTUR
PROGRAMA



haja' Aia
1025

 Aia
TURISMOA.

aiaturismoa.eus

turismoa@aia.eus

